



IRAKURRIZ GOZATU BALORAZIO TXOSTENA

Donostian, 2018ko uztaila

IRAUPENA: 2018ko urtarriletik ekaina bitarte

PRODUKTUA: GAZTEZULO aldizkaria + BEITU! digitala

ALDIZKARI KOPURUA ETA BANAKETA

IKASTETXEA	GAZTEZULO aldizkadia IKASLE KOPURUA	BEITU! digitala IKASLE KOPURUA
Barrutialde ikastetxea	15	44
Gernika BHI	151	189
GUZTIRA	166	233

JASOTAKO ALDIZKARIAK

Urtarrila

Itziar Ituño
(Aktorea)



Otsaila

Richard Oribe
(Igerilaria)



Martxoa

Itziar Zabala
(Eskalatzaila)



Apirila

Joseba Usabiaga
(Aktorea)



Maiatza

Leticia Dolera
(Aktorea)



Ekaina

Eneritz Furiak
(Musikaria)



AZALEKO PROTAGONISTEN AUKERAKETA

Irakurriz Gozatu egitasmoaren **helburu nagusia** gazteek euskaraz modu erakargarrian irakurri dezaten bada ere, badu **beste helburu** bat: **estereotipoekin apurtzea**.

GAZTEZULOko protagonistetako batzuk aurpegi ezagunak badira ere, hain ezagunak ez diren baina bere alorrean esanguratsuak diren gazteen erakusleihen da GAZTEZULO.

- Futbola eta kirol izarrez harago **kirol aukera ugari eta kirolari apartak** daudela **erakusteko**, Richard Oribe **igerilari paralinpikoari** eta Itziar Zabala **eskalatzaileari** azala eta elkarrizketa nagusi izan dira.
- Gazte hauek **zinemaren inguruan dituzten erreferente gehienak atzerritarrak** direla kontutan hartuta, **Itziar Ituño** (Loreak filma besteak beste) **eta Joseba Usabiaga** (Handia) eraman ditugu azalera.

GAZTEZULOREN ATAL ETA EDUKIEI DAGOKIONEZ

Elkarrizketa laburrak eta irudiak dira DBHko gazte hauek GAZTEZULO **aldizkaritik** gehien atsegin dituztenak. Honela, ***Sexumatoia, Komikia, Sare Sozialak eta Alter Ego*** atalak aipatu dituzte gehienek gustukoena moduan. **Kontran**, hilabeteko **erreportajea, Labean eta Norbere Gogora** atalek arrakasta **gutxiago** izan dute gazte hauen artean.

Nerabe hauentzako **eduki interesgarriak eta erakargarriak egiten ahalegintzen bagara ere**, gehienek **testu laburren eta irudi deigarrien aldekoak** direla adierazi digute. Egia da ere, gazte guztiak ez direla berdinak, eta elkarrizketa nagusia goraiatu duenik ere bada.

Gaur egungo GAZTEZULOk duen formatuagatik **“liburu” esaten diote**, hau da, ez dute aldizkari batekin identifikatzen. Hau **desabantaila bat izan daiteke**; izan ere, gure **asmoa GAZTEZULO aisialdiarekin eta entretenimenduarekin lotzea da** eta ez irakurketa luze eta astun batekin.



IRAKURKETA ETA KONTSUMO OHITURAK

Orokorrean, irakurtzeko ohitura handirik ez dutela erantzun dute gaztetxo gehienek. Dena den, hainbat erantzunengatik konturatu gara **irakurtzeaz ari direnean, liburuak eta paperean irakurtzeaz ari direla. Onlineko kontsumoa** (blogak, webguneko artikulua edota online irakurritako elkarrizketak) **ez dute irakurketa moduan kontsideratzen.**

Ez irakurtzearen aitzakia **nagusia denbora falta** dela adierazten dute: asteen zehar denbora libre gutxi izaten dutela eta **nahiago dutela libre duten denbora tarte** txiki hori **Youtuben, sare sozialetan (Instagramen gehien bat) eta lagunekin WhatsAppean** igaro.



Youtube, Instagram eta WhatsApp mugikorraren bitartez kontsumitzen dituzte: **ikastetxean debekatuta dute** mugikorra erabiltzea, **gurasoek ere ez dute begi onez ikusten bere erabilera**, eta nolabait, **debeku hauek erakargarriago eta desiragarriagoa bihurtzen dute** mugikorraren zein euskarri mota hauen erabilera.



Hizkuntzari dagokionez, **euskararekin antzeko egoera ematen da**. Kasu honetan, **euskara derrigortasunarekin lotzen dute**: ikastetxean eta kasu askotan etxean ere euskaraz aritu daitezen etengabeko mezua jasotzen dute (neskato batek “egin euskaraz” eltxo baten burrunba neketsu batekin alderatu zuen, belarrarian etengabe entzuten...). **Lagun artea da “egin euskaraz” burrunba horretatik kanpo duten eremu bakarra**, beraz, eremu aske honetan gaztelaniaren aldeko apustua egiten dute, eta nonbait gainera, **gazteleraz ari-tzea modu naturalean ateratzen zaien** zerbait omen da. **Euskara “betebeharren hizkuntza” den heinean gaztelania aisialdirako hizkuntza da.**

Onlineko hizkuntza kontsumoak ildo berdina jarraitzen du: klaserako lan bat egin behar badute, bilaketak **euskaraz egiten hasten dira**, eta material nahikorik aurkitu ezean, gaztelaniara edo ingelesera jotzen dute. Aldiz, **aisialdiarekin lotutako bilaketa bat egin** behar izanez gero, **gaztelaniaz egiten dute. Hona hemen harritu gaituen beste datu bat: aisialdirako** erabiltzen duten **bilatzailea ez da Google, Youtube** baizik: Zertarako irakurri, zuzenean ikusi edo entzun badezaket?

ERREFERENTEAK, ZALETASUNAK ETA KEZKAK

Jarraitzen dituzten erreferenteen inguruan galdetu diegunean, konturatu gara aipatu dituzten **erreferente gehienak “birtualak” direla**: youtuberrak, blogariak, *Instagram*eko influencer-ak, *cover*ak egiten dituzten gazteak, dantza eta koreografiak egiten dituztenak ... hau da, ez dira ohiko abeslariak, kirolariak edota aktoreak.

Azpimarratu nahiko genuke ere, **erreferente hauen jatorria ere ez dela euskalduna**. Hala nola, hauek izan dira gehien errepikatu dituzten izenak: El Rubius, Dulceida eta Sr.Cheeto espainiarrak eta AEBetako Chiara Ferragni eta Nash Grier.

Aldiz, belaunaldi honetako gazteak **dituzten zaletasun eta kezak ez dira horrenbeste aldatu aurreko belaunaldiko gazteekin alderatuta**. **Zaletasunen** artean **musika, kirol desberdinak, bidaiatzea eta parrandak** dira nagusi, eta dituzten **kezka** aipatuena **ikasketak, lagunen arteko zein bikote harremanak eta islatzen duten irudiak** kezkatzen diete gehien bat (itxura fisikoa, janzkera, jarraitzaile kopurua... nolabait popularra eta onartua izatea).




BEITU! DIGITALA

Kontutan izan behar dugu, **lehen belaunaldi digitalaren aurrean** gaudela eta gazte hauek eta **eremu digitalan sentitzen direla** eroso. Ezin dizkiegu **gure ohitura analogikoak inposatu**, beraien eremu digitalera hurbildu behar gara eta **kontsumitzen dituzten euskarriez baliatu, guk nahi dugun mezua transmititzeko**. Hori da BEITU!rekin lortu nahi duguna, **atsegin dituzten formatuetara egokitu, euskaraz irakurri eta kontsumitu dezaten**.

BEITU! hilean behin zuzenean beraien **WhatsApp**an jasotzen badute ere, **Instagram** kontuaren **bitartez (@beitu_insta)** ia egunero eskaintzen diegu euskarazko eduki atsegin bat (bideo dibertigarriak, memeak eta GIFak, lehiaketak....) Modu honetan ere lortzen dugu **beraiekin harremana mantentzea modu zuzenean**.

Bestalde, gazte hauen **gustuak eta interesak ezagutzeko beharrezkoa da feed-backa jasotzea**, eta horretarako **Instagram** primerako tresna da.



BEITU! ATALAK

Kuxkux-Ero elkarrizketa:

BEITU!ko elkarrizketa nagusiak **WhatsApp**-eko elkarrizketa baten formatua du helburu bakar batekin: **irakurketa erakargarria egitea**. Gazte hauek duten hizkuntzara moldatu dugu formatua: argazki, emotikono eta sare sozialei erreferentzia eginez.

‘**Irakurri**’ terminoa **papereko euskarriekin lotzen dute**, modu digitalean kontsumitzen dituzten testuak ez dituzte irakurketa moduan kontsideratzen. Modu honetan euskaraz irakurri dezaten lortzen dugu, beraiek konturatu gabe.



Ane Atxutegi youtuberra:

Gaztetxo hauen **erreferente nagusienak youtuberrak** dira eta tarteka amu gisa jada jarraitzen duten **Telmo Trenado youtuber ezagunaren kolaborazioa izan arren**, ezinbestekoa da **BEITU!k bere youtuber propioa izatea**: Ane Atxutegi 20 urteko bizkaitarra da BEITU!ren youtuber ofiziala.



Ane Atxutegiren bitartez **hainbat balore transmititzen ahalegintzen gara**: hala nola, Aneren irudiak egungo **estereotipo asko hausten ditu eta bere "akatsak" bertute bilakatzen daki** (bere bideoetan baldar xamarra dela askotan adierazten du, eskuanak egiterakoan, esaterako), **den bezala agertzen da naturaltasun osoz** eta umoreaz baliatuta, bere buruaz ere barre egiten badaki.

Esan genezake, gaztetxo hauek hainbeste **miresten duten Dulceida youtuberraren antitesia dela** Ane Atxutegi. Une oro, **eder eta lirain egotea ez dela beharrezkoa ezta errealia ere**, eta miresten dituzten youtuberrak irudi bat eraikitzen dutela, hau da, kanpo itxuran oinarritutako irudia.

Dama Panpoxa moda bloga:

BEITU!ren erabiltzaileek modaren inguruko blog bat faltan botatzen zutela adierazi ziguten eta horregatik sortu genuen atal berri hau.

Dama Panpoxak ohiko outfit edo jantzi erduz baliatuz, moda kontuei beste **balio etiko bat erantzten die**, adibidez, **moda jasangarriaren** inguruan aritzen da, **generorik gabeko jantziei** egiten die erreferentzia, **Do It Yourself** edo arropak norberak egin edo moldatzeko gomendioak ematen ditu (dena ez da erosi, erosi eta erosi = kontsumismoa), **low cost arropen kontsumoak dituen arriskuak eta ondorioak...**



MR. EUSKALDUNen umore grafikoa:

Instagram sare sozialaren bitartez **ospe handia lortu du Mr. Euskaldunen umore grafikoak** (22.100 jarraitzailetik gora ditu) eta ospe horretaz baliatu gara gaztetxo hauek euskarazko umore grafikora hurbiltzeko.

Izan ere, gaztelerazko *Cabronazzi*, *MongeDraws* eta *Ordure.Bizarre-ren* meme eta umore grafikoen jarraitzaile sutsuak dira gaztetxo hauek eta **Mr. Euskaldunek antzeko umorea jorratzen du bere publikazioetan, baina euskal erreferenteak erabiliaz.**





Parte hartzera zuzendutako atalak:

- **Zuk egiten duzu BEITU!**: Ikusi / irakurri nahi dituzten **edukiak gomendatzeko** aukera dute atal honen bitartez, **beren bideoak edota argazkiak bidaltzeko** tartea, edota **Kuxkux-Eroko protagonista proposatzekoa**.
- **Sexu kontsultak**: **Anonimotasuna** gordez, **sexuaren inguruan dituzten galderak**, kezkek zein arazoak erantzuten dizkie **Eros sexologoak**.
- **Spotifyko Playlistak**: Hilabetero **abesti zerrenda aukeratzen dute**, nahiz eta guk **proposamenetan musika talde euskaldunak** tartekatu.
- **Gonbidatu lagun bat BEITU!** jasotzera: **BEITU!ren eduki guztiak partekatu daitezke**, eta *WhatsApp*ren bidez jasotzen dutenez, ezin erosoago eta errazagoa daukate. Dena den, bereziki lagun bat gonbidatu nahi izanez gero, zuzenean BEITU! hilabetero jasotzeko, aukera hori ere eskuragarri dute.
- **Lehiaketak**: BEITU! **jasotzeak saria dakar!** Scape Room-ak, eskumuturrekoak, Mr. Euskaldunen kaitilu eta poltsak,

ONDORIOAK

- Oro har, **gustura hartu dute parte** *Irakurriz Gozatu* egitasmoan eta guztiek **aurkitu dute** GAZTEZULO aldizkarian zein BEITU!n **edukiren bat atsegina iruditu zaiena**.
- **Jarrera bat aldatu nahi bada**, edo zerbaitetan eragin nahi bada (kasu honetan irakurtzeko ohituraren eta euskararen erabileran) **derrigortasunetik eta debekutik egitea ez da aukera zuzena**, eta kontrako efektua lortzeko aukera gehiago izango dugu. Horregatik da garrantzitsua beren nahia eta gogoetatik abiatzea.

- *Irakurriz Gozatu* proiektuak sorreratik **helburu nagusi** bat izan du: **euskarazko irakurzaletasuna sustatzea**, eta helburuak lortzeko ahalik eta **modu erakargarrian eta dibertigarrian** egin behar dugu. Aurretik aipatu bezala, gazte hauek irakurri terminoa paperarekin lotzen dute, eta **BEITU!**rekin lortzen ari garena da **euskaraz irakurtzen ari direla konturatu gabe**.
- GAZTEZULOren erronka da **egiaztatzea euskarak ez duela mugarik**, alegia, **euskarak ohitura eta formatu berrietara egokitzeko gaitasuna** duela, eta BEITU!rekin lortzen ari garela uste dugu.
- Gaztetxo hauek **ez dute nahi subjektu pasiboak** izan eta **proiektuan parte hartu nahi dute**, nola-bait *berea* sentitu nahi dute. Horregatik, **proposamenak egiteko zein beraien edukiak argitaratzeko tartea** eskaintzen diegu.

